

## Kanonaren popa



Eneko Olasagasti

ZINEGILEA

@EnekoOlasagasti

**E**z dut ETBz idatziko. Inor ez haserretzeko, kanonaz idatziko dut. Lehengo eta behin esan, ez dela txalupa mota bat. Baina ez dut uste erraza izango denik, zeren kanona aipatzen denean euskal kulturaren ekosisteman beti haserretzen da norbait, ez dutelako sartu hierarkian edo sartu dutelako, baina haserre. Eta barkatu dena minuskulaz idaztegitik.

Kanona araua da baina zerbait gehiago ere bai. Grezia datorrit gogora eta haien neurtzeko modua. Kategorian laburbildu daiteke ere bai. Kanona hierarkia da. Horrek esan nahi du batzuk goian daudela eta beste batzuk behean. Kanoneko ezaugarriez ere idazten dute adituek. Idatzi eta idatzi. Honek, azken batean, kultura mundua, mundua, ulertzeko modu bat besterik ez du adierazten. Hau da, batzuek kategoria daukate eta besteek ez. Kategoria zer den beste kontu bat da. Ez dago zutabe honetan horretarako lekurik. Garbi dagoena da kanonaren neurriak garaien arabera aldatzen direla, ez direla berdinak, alegia, mende batekoak zein besteak.

Aurrekoa kontuan hartuz, iruditzen zait gure kulturaren kanona oraindik ere lotuago dagoela XIX. mendeari, XXI.ari baino. Zeren geure kanoan garbi dago zeintzuk dauden goian. Bizirik dauden idazle batzuk, bi-hiru gehienez, hildako eskultore batzuk, bi-hiru ere bai, eta margolari batzuk. Hori da gure kulturaren kanonaren goi

-maila. Hori da mediatikoki bultzatu eta prestigioa ematen duena. Zaila da imajinatzea beste esparru bateko artistaren bat Parnaso horren parte izatea. Eta burura eta gogora datozkit musikariak, aktoreak, argazkilariak, poeta tristeak, kantariak, dantzariak, marrazkilariak, diseinatzaileak, soinu ingeniariak, bertsolariak, gidoilariak... Horiek guztiek ere hierarkiaren parte dira baina kanonaren mugen barruan ez dira sartzen nonbait. Adibide bat jartzearen, inozoa guztiz: Atxagari Nobela emango baliote ziur naiz Iñigo Urkullu Oslon izango litzatekeela, baina Telmo Esnali Oscarra emanez gero –hamaika ikusteko jaiok gara–, Los Angelesen ez.

Ahaztu egiten zaie, Los Angelesetik Bilbotik baino gertuago, bizi izan zela gaur denok kanonaren barruan sartzen dugun tipo bat: Andy Wharlol. Pop kultur kontzeptua sortu zuela. Pop popularretik dator, hau da, hierarkiaren mailaren baxuenetik. Eta bada denbora, horrek kanonaren arauak hautsi zituela. Baina nonbait gurean batzuek ez dute hori aintzakotzat hartu nahi.

Nik neure burua pop arte hori egiten dutenen artean ikusten dut, eta berdin zait kanonaren parte naizen edo ez. Baina kulturaren parte naizela ez dut zalantzarik. Beraz poperoa sentitzen naiz, poperoa naiz. Eta euskaraz popak duen beste zentzuarekin ere guztiz bat egiten dut. Azken batean hierarkiaren azken tokian gaude: popan. ■

## Mafiak



Itxaro Borda

IDAZLEA

**F**rantziako lehendakaria aukeratzeko kanpaina abiatua da, beraz, Ipar Euskal Herrian ere bai; nahiz eta ETArekin apirilaren 8ko desarmearen iragarpenak ikusgarria uhertzen digun, apur batez.

Hauteskunde baino, immunitate politikoa lortzeko eta justiziari ihes egiteko lasterraldi antza ikusten ditugu pantailetan hedatzen zaizkigun François Fillonen edo Marine Le Pen andere panpalinaren ekinak. Auzitegiak eta epaileen egiturak suntsitzen ahal balira, orduan bai, demokrazia zinezkoa litekeela: eskubideak niretzat, gaztiguak besteentzat.

Garbitasun eta gardentasun irakaspenak ematen dizkigute bi hautagaiek, iruzur soziala

dutela partida, baina biek ala biek ardo mingar horretatik ausarki edaten dute: Fillonek, nepotista handiak, emaztea eta haurrak diru publikoz ordaindu ditu, berak artean opariak hartzen zituela. Halaber, Le Penen alderdi euro eta xenofoboa, Europako eta Frantziako sosa komunari esker bizi da lege guztien mespretxuan.

Sistema salatzen dute biek, sistemaren biktimak direla sinetsarazten diote jendalde auto-biktimizatuari, sistemarik gabe hondarrean deus ez litezkeelarik. Min egiten du konturatzean gure zergek gure aurka altxatuko diren ideologo faxis-toidak finantzatzen dituztela. ■